



Bea Medrano Asenjo. 33 urte. Arangoitikoa, Kiskitinak emakume taldeko kidea....

- Soziologoa, Gizarte hezitzailea eta Berdintasun Teknikaria (EHUko Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako masterduna).
- Urtxintxa Eskolan 10 urteko esperientzia irakasle gai hauetan: soziologia, hezkidetzan, generoan eta sexualitatean.
- Esku-hartze soziokulturalean eskarmentua izateaz gain, Astialdiko eta Hezkuntza Ez Formaleko hezitzaile asko prestatu du.

ASTIALDIAN HEZKIDETZA LANTZEN

Urtxintxa Eskolaren aurkezpena

URTXINTXA Astialdiko Hezkuntza Eskola bat da, 1.986an jaioa, Gizarte Ikasketen Bultzapenerako Erakundearen eskutik, bere beharrei egokitutako hezkuntza biderik aurkitzen ez zuten Astialdiko eta kultura arloko talde batzuei hezkuntza eta jarraikortasun bat emateko asmoz.

URTXINTXA ESKOLAren ekintza nagusia Heziketa Ez Formalean hezkuntza bultzatzea eta garatzea da eta bere helburua ekite komunitarioan jarduteko gizarte-agenteak prestatzea da, hortik helburu hau hoberentzea ahalbidetuko duten hezkuntza planetaz jabetu behar izana.

Gaur egun Eskolan garatzen ari den lana, bere nortasunagatik, bai Eskola, zein bertara hurbiltzen diren pertsona guztien bizitzari zentzua emango dion heziketa bultzatzera zuzenduta dago.

Eskaintzen dugun prestakuntzan gure proiektuaren ardatz nagusiak islatzen ditugu: **Hezkidetz**a, **Euskara** eta **Heziketa Baloreetan**. Eta urteetako lanari esker onspena jaso dugu arlo ezberdinetan. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak “**Bai Euskarari Ziurtagiria Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz**” agiria luzatu digu. Eta hezkidetzari dagokionez, azken hiru urteetan sari hauek jaso egin ditugu: **2001 Emakunde Saria**, hezkuntza arloan, Bizkaiko Foru Aldundiaren **2002ko Berdintasuna Saria** eta, **2003ko Emakunde Sarietan ‘Ohorezko Aipamena’**. Honek indarra ematen digu aurrera egiteko, hasitako bideak jorratuz, eta berriak irekiz.

URTXINTXA ESKOLAREN Hezkuntza Eskaintza honako hau da:

a-. HeZiKeTa PIAnA

Ikasturte berri honetarako, hauek dira eskaintzen ditugun ikastaroak:

- Astialdiko Begiralea
- Astialdiko Zuzendaria
- Bolondresgoaren Suspertzaile Sozio-Kulturala
- Ingurumen Heziketa
- Drogamenpekotasunen Prebentzioan Gazte Bitartekaria
- Beste batzuk: euskal jolasak, heziketa berezia, orientazioa...

Gaur egun **300 pertsona** baino gehiago dira Eskolan formatzen ari direnak, eskaintzen diren hezkuntza ikastaro ezberdinak egiten.

Bizkaiko Urtxintxa Eskolatik, abalazten gaituzten **18 lan-urteetan zehar**, hainbat hezkuntza ikastaroak egin ditugu erakunde eta Udaltxe ezberdinekin: Urduña, Santurtzi, Getxo, Eibar, Elgoibar, Arratia, Ondarroa-Lekeitio-Markina, Txorierrri, Basauri, Audio, Gasteiz, Durango, Bilbo....

b-. HeZkunTza IraunKoRRa

Eskolak, ikaslegoarentzat edo elkarteen partaideentzat interesgarriak diren gai batzuetan sakontzeko, urtero eskaintzen dituen Monografikoak.

d-. AhOIKulaRitza

Talde edota elkarteentzako informazio eta aholkularitza zerbitzua. Emandako informazioak arlo ezberdinak jasotzen ditu: elkarteen legeztapena, dirulaguntzen eskaerak, arazoak dituzten taldeen dinamizazioa e.a.

e-. AisialDikO LibuRuTegia

Pertsona eta taldeen eskura dauden baliabide bibliografikoak, mailegu eta kontsultarako. Genero gaian espezializatua.

f-. BesTe pRoiekTu BaTzuk

Argitalpen batzuk egiten lagundu dugu (gehienak hezkidetzarekin eta euskararekin lotuak), mintegi eta jardunaldien buruketa kudeatu dugu, baita auzolandegiak eta estatuko elkarteekin elkartrukeak, hezkidetzaren inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio programak garatu ditugu administrazio ezberdinekin, eta abar.

Elkarkidetzari egindako hezkuntza ekarpenaz gain, elkarlanean ari gara administrazio eta beste erakunde batzuekin.

1. Urtxintxa Eskolaren aurkezpena

- **1986an sortzen den Astialdiko Eskola, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.**
- **Helburuak:**
 - o Hezkuntza Ez Formalean prestakuntza sustatzea eta garatzea.
 - o Euskal Herriko gizartean aritzeko agenteak sortzea
- **Hezkuntza Proiektuaren ezaugarriak:**
 - o Hezkidetzak.
 - o Kritikoa.
 - o Ikertzailea.
 - o Dinamikoa.
 - o Sortzailea.
 - o Etengabeko egokitzapena.
 - o Euskal Herrian eta Euskal herriarentzat hezi.
 - o Anitza.
- **Ekiteplana:**
 - o Formazioa:
 - Oinarrizko hezkuntza.
 - Hezkuntza iraunkorra.
 - o Gizartean interbentzioa:
 - Ekipamenduak.
 - Egitasmoak.
 - o Bestelakoak:
 - Aholkularitza.
 - Dokumentazio zentrua.
 - Jardunaldiak.
 - Elkartrukeak.
 - Adostutako hezkuntza.
 - Aterpetxeen kudeaketa.
 - Foroak.
 - Ikerketak.
 - Argitalpenak, ...
- **Antolakuntza:**
 - o Asanblada.
 - o Giza-baliabideak: koordinatzaileak (20), irakasleak (60), langileak (6+proiektuka), laguntzaileak.
 - o Lan taldeak:
 - Kudeaketa batzordea
 - Zuzendaritza batzordea.
 - Genero taldea.
 - Euskara Taldea.
 - Koordinazio taldea
 - Irakasleen azpitaldeak.

- **Prestakuntzarako kalitatezko irizpideak: Ratio, koordinatzailea, euskara, denbora, metodologia, ebaluazioa, genero ikuspegia.**
- **Metodologia: Partehartzailea, aktiboa, praktikoa, ikertzailea, ebaluaketa jarraia, iraunkorra.**

2. Urtxintxa Eskolan Hezkidetzaren garatzeko prozesua:

- **Sexualitatea eta generoen azterketa.**

Urtxintxan sortzen denean begirale ikastaroan eta monografikoetan sexualitatea lantzerakoan sozializazio prozesu desberdina aztertzen da, sexu eta genero roletan, estereotipoetan eta jarreretan sakontzen.

- **Koheziketa=hezkidetzaren begirale ikastaroan.**

Denbora gehiagotan eta ikuspegi zabalagoa aztertu nahian azpitalde bat sortzen da. Honek gaia jorratzeko dinamika propioa sortzen da.

- **Emakume Elkarteak.**

Urtxintxan emakumeen interesak bilduko zituen elkarteak.

- o Urteroko ekintzen bidez hezkidetzaren eskaintza ez formalean eta arlo soziokulturalean.
- o Aukera Berdintasuna oinarri duten programa bereziak sortu
- o Gure ikasgaietan eta egituretan zehar lerroa izan.
- o Hezkidetzaren, barne formazioaren bidez, zabaldu.
- o Proiektu desberdinak (liburua, Europa, kirola...) gauzatu.
- o Emakume eta gizonen egoerari buruzko eztabaida-guneak ireki.
- o Gizarte mailan Aukera Berdintasunaren ikuspuntutik beharrei erantzun.

- **Hezkidetzaren azpitaldea.**

Begirale ikastaroan sistema sexu-generoaren marko teorikoaren oinarriko kontzeptuak ezagutzeko bitartekoa. Astialdian ikuspegi honen azterketa txertatzeko asmoz.

- **Hezkidetzaren eta Aukera Berdintasunaren Zeharkakotasuna.**

Emakume eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaz ari garenean, hezkidetzaren arloan, pertsona guztiek, sexu biologiko eta sozialetik at, norberaren beharren arabera planifikatutako eta ezarritako hezkidetzaren jasotzeko duten eskubideaz ari gara, bakoitzaren singularitasuna kontutan hartuz eta pertsonaren garapen osoa ahalbidetuz gauzatzen den hezkidetzaren.

Gure jardueraren xede izango den gizarte sistema ahaztu gabe. Emakumeak baztertzen dituen sistema, baztertuz, balioa kenduz eta estigmatizatuz, gizonaren alde eginez, botere patriarkarra mantentzeko mekanismoetan oinarritutako gizarte androzentriko aurkezten digularik. Sarritan, diskriminazio egoera sortzen duen mugimendu sozial berak sortutako mekanismoak izanik.

Gizonekiko berdintasunean tratatuak izateko eskubideaz ari gara. Pertsona, emakume edo gizon izateak eragiten dituen errepresentazio mental eta sozialak (era asimetrikoan eta hierarkizatuan ikusiz bata eta bestea) eta estereotipoak alde batera uzten dituen kontzeptua definitu behar da; betiko dikotomiak, lengoaiak eta arau androzentrikoek sortuak, gaindituz, sinboliko berriak, kontzeptu berriak eratzeko, benetako berdintasuna, izateko berdintasuna ahalbidetuko dutenak.

Aukera Berdintasunaren aldeko defentsa bermatzen duten sistema eta eredu hezitzaileak aztertuz, generoen politika hartzen zuen ereduak aukeratu nahi izan genuen; hau da, **eredu hezkidetzaren**, azterketarako eta jarduerarako tresnak emango zizkigulakoan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat eta gizarte berdintsuago baten garapena bermatzeko.

Eredu hezitzaile horren helburua pertsonaren garapen osoaren kontzeptuzko edukia identifikatzea da, abiapuntua ikuspegi kognitiboa, afektiboa eta jarrerazkoa izanik, generoa aztertuz, hau da, kontzeptuzko eskemetan edo beste edozein arlotan dauden aurreiritzi sexistak agerian utziz.

3. Astialdian zer gertatzen ari da?

- Prestakuntzan:

- Susperketa Soziokultural eta Astialdiko Eskoletan lan tresna hezkidetzaille gutxi daude.
- Arlo guztietan hezkuntza bereizia eta sexista jaso duten gazteak heltzen dira.
- Onartua dago pertsona guztiei, bai harreman sozio-laboralen arloetan, zein arlo pribatuetan garatzeko, aukera berdintasuna eskaintzeko sexu-generoan oinarritutako planteamenduen garrantzia, baina ez dago serioski planteamendu kurrikulurra.
- Astialdian prestakuntza arloa baloreen prestakuntza arlo nagusia dela esaten da, baina berdintasuna ez da bermatzen, beraz, ez da kongruente.
- Arloaren feminizazioa, zergatik?. Titulazioa
- Gazteen artean berdintasunaren pertzepzioa, ez dagoenean.

- Interbentzioan:

- Boluntario lana feminizatua, eta desbalorizatua sozialki.
- Lan merkatuan sartzeko aukera dagoenean 'mixtoa' izatea eskatzen da.
- Lanbide berriekin topo: arazoak.
- Programak, proiektuak, jolasak, taldeen antolakuntzan, ikuspegi androzentrikoa (ekipamenduen arauak, materialak, irudiak, ...).
- Oso estereotipatua eta gaurko eredu berriak txertatu barik: sexualitatean, familia berriak, beste herri batzuetatik etorritakoak, ...
- Umeek dauzkaten erreferenteak eta estereotipoak ere begiraleengan islatzen dute.

4. Zelan ulertu Hezkidetzaren Hezkuntza Ez Formalean?

Hezkuntza Ez Formalean, jarrera kritiko batetik, Astialdiaren arloan balore batzuk garatu nahi dituen lan hezitzailea da, eta arlo hori gaindituz emaitza bezala bizitza mota berriak eta pertsonak askeagoak izango direneko gizarte bidezkoago eta solidarioagoa izango dituen.

Ikuspuntu honetatik, "Hezkidetzaren Ez Formala" ikasleak pertsona autonomotzat ditu; hauek, bere ikaskuntza aukeratu eta eraikitzeaz gain, besteei talde eta norberaren prestakuntzarako informazio azpimarragarria ematen dietelarik, genero azterketa egin eta buru-egitura sexistak gainditu ondoren. Elkarlaguntzazko ikasketa litzateke, non partaide guztiek prozesua determinatzen duten, sinboliko femeninoaren ekarpenak sustatuz eta programatuz.

Hezkidetzaren Ez Formalean, normalean, hezkuntza formalean bazterturik egon diren baloreak jasotzen ditu, astiro, ikastetxe askoren curriculum proiektuetan agertzen direnak. Ondorioz giza bizitzaren aspektu guztiak (kognitiboak, sozialak, afektuzkoak, kulturalak, pertsonalak, produktiboak,...) kontuan izango dituen heziketa integrala planteatzen da. Astialdi Hezkidetzaillean bultzatu nahi diren parametro hezkidetzailleak, azken finean.

Kontutan eduki behar dugu emakumea astialdiko programetara sartzeari berandu ematen dela, hasieran era banatuan eta gero era mistoan (hezkuntza sistema arautuan gertatu bezala), baina mendeetan zehar eraikitako ikuspegi soziokulturala sartu gabe.

Kultura maskulinoaren rolen orokortzeak (arrazionaltasuna, abstrakzioa, adimen logiko-formala,...) emakumeen berezko kultura ezabatu egin du luzaroan (afektibitatea, samurtasuna, intuizioa, harremanetan sentikortasuna,...) Horrela, lehenengoetan oinarritutako prestakuntza plan soziohezitzaileak diseinatu dira, bai emakume bai gizonei zuzenduak, emakumeen kultura ezkutatu, baztertu eta diskriminatuz. Arlo honetan, berriro ere, gizonek ez dute berau ezagutzeko aukerarik izan eta emakumeek bere ezagupenak, harremanak izateko eta egiteko moduak ez baloratzen ikasi dute.

Proposamen hezkidetzailleak praktika hezitzailean desagertu edo bazterturik geratu diren emakumeek garatutako balore, ezagutza, trebetasun, gaitasun eta eginkizun historikoak sartzea esan nahi du. Emakumearen kulturaren alde positiboak berreskuratzean datza, baita estentsiboak egitean ere, gizateriaren zati bat direlako eta kultura kolektiboaren zati direlako ere.

Hezkidetzak pertsona guztiak gizarte generoaren arabera hierarkizaturik ez dauden, balio, portaera, arau, espektatiben sistema batean berdindatzea esan nahi du. Berdintasunetik, eskubide gisa; ezberdintasunetik, pertsonen, emakume eta gizonen, identitatearen berezko ezaugarri bezala, abiatu behar deneko prozesua suposatzen du; baita bi eredu, maskulino eta femeninoa, integraziotik ere.

5. Andraisia. Gazteentzako aukera berdintasuna Hezkuntza Ez formalean. Genero ikuspegia begirale ikastaroan.

Lan hau egin zenean Heziketa Ez Formalean material hezkidetzaileren gabezi nabaria ikusten genuen, sektore honetara zetozen pertsonen garapen hezitzailearen eragin zuzena zuen gabezia.

Beste alde batetik, onartua dago pertsona guztiei, bai harreman sozio-laboralen arloetan, zein arlo pribatuetan garatzeko, aukera berdintasuna eskaintzeko sexu-generuan oinarritutako planteamenduen garrantzia.

Hala ere, gizonezkoen populazioa zein emakumezkoena, pertsonen garapen osoa eragozten duten genero estereotipoek ezarritako baloreen bidez prestatzen dira, eta kontuan hartu behar dugu astialdian prestakuntza arloa baloreen prestakuntza arlo nagusia dela. Hortik arlo honetan kokatzen diren erakundearen programen birplanteatze eta balioa handitzea ezinbestekoa zela adostu genuen 2000. urtean.

Hau dela eta, 2001ean gure Eskolaren programazio kurrikular zentzu honetan egokitzea izan genuen helburu. Europako Gazteria Programan kokatuta urte osoko lana burutu genuen, non 25 gazte baino gehiagok parte hartu zuten, gai bakoitzeko unitate didaktiko berriak sortuz.

- Lan honen asmoak honako hauek izan genituen:

- Prestakuntza Ez Formaleko Eskoletara datozen pertsonak prestatzea, bere garapen osoa, Zentroko Proiektu Hezkidetzaillearen definizioaren bitartez, bermatuz.
- Emakumeek, arlo soziokulturalean, elkarrekin parte hartzea bultzatzea, berezko beharrei eta gizarte inguru hurbilenaren beharrei erantzunez.
- Emakumeak, azken urteetan gora egin duen, lan sektore soziokulturalean sartzea.

Honek, gure Eskolari dagokionean, era berezi eta zehatzean ekitera eraman gintuen, ondoren azaltzen ditugun ekintzekin.

- Izandako faseak:

- Europear Komunitatean gure ideia plazaratzea, arlo soziokulturalean prestakuntzarako materialak, genero ikuspegitik, elkartrukatu, sortu eta egokitzeko. Onartu zen eta ikerketa lanari diru laguntza eman zitzaion.
- Lehenengo fase batean, gure proiektuari buruko hausnarketa burutu genuen, geroago erreferente gehiago bilatu behar izan genuen eta prestakuntza jaso.
- Bigarren momentu batean, boluntario lana egin zuten Urtxintxako koordinatzaile eta irakasleek, hauek ere material didaktiko hezkidetzailleak sortu eta egokitzeari ekin zioten.
- Amaitzeko, material horiek ezarri eta ebaluatu egin ditugu.

- Liburuan aurki dezakeguna zera hau da:

- Hezkidetzaren marko teorikoa.
- Hezkuntza ez Formalean hezkidetzaren aplikazioa.
- Andraisia proiektuaren prozedura.
- Urtxintxako Begirale ikastaroan jorratzen ditugun gaitasunak eta baloreak.

- Begirale ikastaroaren programazio unitate didaktikoak.
- Metodologia eta ebaluazio hezkidetzaillea.
- Bibliografia eta dokumentu interesgarrien erreferentziak.

Lorpenak:

- Ezarritako helburuei dagokienez:

Gure helburua, arlo honetan ere, sexua dela eta, bazterketak ekiditeko, Hezkuntza Ez Formalean Eredu Hezkidetzaille bat ezartzea zen eta da. Horretarako zeregintzat hartu genuen, ildo honetan, gela-tailerraren praktikan, emaitzak lortzen lagunduko gaituzten curriculum materialak berrikustea eta sortzea (generoa zeharkako bihurtzearen prozesuaren zati bat besterik ez dela kontutan hartuz).

Lan honetan nondik jo erakutsi eta gure gida izan diren hainbat baliabide aurkitu ditugu eta Unitate Didaktikoan taldean egin ahal izan ditugu ere, guztia azterketa tresna gisa erabili ahal izan dugularik eta, hasiera baten, ikuspegi hezkidetzaillea sartzeko aukera eman digularik.

Esan bezala, gela programazio hauek praktikan jarri behar dira tailerrean bertan eta, gero, berriro aztertu behar dira, gure helburuekin bat egiten ez duena edo baliagarria ez dena aukeratu, hobetu eta aldatzeko.

- Nahi genuen, ahal izan genuen eta lortu genuen.

Nahi genuen gure zeregin hezitzailean baliagarriak izango zitzaizkigun curriculum materialak sortu, zeuden batzuk aukeratuz eta berrikusiz eta geureak sortuz, ikertuz eta arituz. Hau bere oinarrietan Eredu Hezkidetzaille baten alde egiten zuen eskola baten egin genezake soilik. Urtxintxa Eskola prest agertu zen eta abiapuntua hori dela ikusi dugu: genero azterketan oinarritutako pedagogia bat **ezarri nahi izatea**, pertsonen artean berdintasuna eta pertsonaren enpoderamendua lortzeko.

Ahal izan genuen: metodologia birplanteatzeko aukera izan genuen. Astialdi hezitzaileko metodologia garapen pertsonala eta hezkuntza baloreetan sustatzeko egokia bada ere, jarrera sexista eta baztertzaileren azterketa orokor bat egin ahal izan genuen, bai ikerketa honen praktikan, bai gelan praktikan. Bigarren ondorio gisa, gure unitate didaktikoak, sexu-genero sisteman oinarritutako metodoa eta ekintza, osotasunean birformulatu **ahal izan ditugula** esan behar dugu.

Lortu genuen jarrerak aldatzea. Prozesu honetan parte hartu dugun guztiok gure jarrera sexisten inguruan lan egin nahi izan dugu eta ahal izan dugu. Gure burua prestatzea, kontzientziaztea, rolak birplanteatzea lortu dugu, indibidualki eta taldean lan egin dugu, laguntza eman diogu elkarri eta aurrera egiteko irizpideak ezarri ditugu. Gure aldaketaren protagonista izatea lortu dugu eta, aldi berean, kideen laguntza izatea eta beraiek kutsatzea, gure jardueretan presente, ikusgarri eta garrantzitsu agertuz.

- Beraz, zera uste dugu:

- Hezkuntza Ez Formalean, **Eredu Hezkidetzaille** bat ezartzea **egingarri eta beharrezkoa** dela, esparru honetan portaera patrioak, era berean, astialdiko ekite hezitzailearen gida diren portaerak, indartzen dituzten balore eta jarrerak transmititzen direlako ere. Berrikusitako guztian argi ikusten da aspektu sexisten azterketa falta, horregatik beharrezkoa ikusten dugu gai guztietan sakontzea, zehatzetik (zer daukagun) hasita, orokorra (zer nahi dugun) joanda.
- Genero maskulinoa, arlo honetan prestakuntzan ari diren entitateen, curriculum materialetan eta programazioetan gehien ikusten dena dela. Gure kasuan, “pertsonen hezkuntza”, “berdintasuna”, “justizia”, “agintea”,... bezalako terminoak erabiliz hitz egiten genuen bitartean, berrikusi gabe geneukan material didaktikoa, estereotipoak gainditzeko oso elementu garrantzitsua dena. Hori dela eta, bere osotasunean, pertsona izatea, eta zehazki, begirale izatearen kontzeptu berri baten lagunduko duten **baloreen sistema berri bat** eraikitze bide hasi dugula uste dugu.
- Gure irizpideen artean esplizituki zehaztuta egon gabe, **portaerak eta jarrerak ebaluatu eta baloratzen** ari ginenaz ohartu ginela. Hau gure balorazio metodoak, sakontasunez, berrikusi eta berdefinitzeko baliagarria izan zen.

- Astialdi Hezitzaileko **metodologiak** bermatu egiten duela Eredu Hezkidetzaillea, ikaskuntza autonomoa eta ikerketa-ekintza bultzatzen baititu. Hala ere, metodoaren hausnarketa eta azterketa ikerketa feministetatik sortutako estrategietan oinarritu behar da, ideia hauek hezkuntza komunitatearen “sen onaren” zati izan daitezen ahaleginak eginez, eskubideetaz, enpoderamenduaz, testuinguruaz, aukeretaz ari garenean, adibidez.

- **Aurkitutako zailtasunak:**

Proiektuak iraun duen urte honetan zehar zailtasun asko aurkitu ditugu, noski:

- Proiektu hezkidetzaillea martxan jarri behar duten pertsona guztien **inplikazio falta**, batzutan aldaketari oztopoak jarriz, portaera axolagabeak hartuz, besteetan. Horregatik ezinbestekoa ikusten dugu entitatearen gestio edo zuzendaritzaren erabaki tinkoa, elkarte, eskolako partaide bakoitzaren konpromisoa eskatu eta balora dezan. Generoa jasota egon behar da zuzendaritzetan, era esplizituan eta arduratsuan.
- **Prestakuntza beharra.** Prozesu osoan, funtsezko behar bat izan da, garrantzitsuenetarikoa. Prestakuntza eta informazioa genero gaian planifikatua eta ziurtatua egon behar da, praktika onen berme gisa.
- **Genero politikan plan baten gabezia.** Gure esperientziak, edozein bazterketa mota ezabatu nahi duen zentroan edo entitatean, genero aspektu guztietan sartzeko gida izango diren irizpideak garatu behar direla erakutsi digu.
- Honekin, **generoen berdintasuna bermatuko duten tresnak** ere sortu behar dira, gai honetan elkarteak duen politika eta plangintza neurtuko dutenak.
- Hezkuntza Ez Formalararen esparruan, **boluntario kopuru altua** aurkitzen dugu. Honek, suposatzen dituen abantailekin, generoa ezartzeko kontutuan izan behar dugun aspektu bat dauka. Eskaintzen duten denbora ez da osoa izaten eta, batzutan, iraunkorra ere ez; beraz, boluntario berriak prestatu behar dira, beste batzuk birziklatu, pertsonen beharra, orain eta hemen, duen proiektu honen jarraikortasuna bermatuko duten estrategia motibatzaileak bilatu behar dira, esperientzia eta, batez ere, denbora asko behar da.
- Agente guztiengan ikerketa-ekintza-prestakuntza ziurtatuko duten metodologiak sartzea.

- **Zera lortu dugu:**

- Gure intuizioari, curriculum material berriak sortzeari dagokionez, balioa ematea.
- Eskola eta gestio taldea inplikatzea. Lehen esan dugu bezala, entitatearen gestio taldearen konpromisoa eta ardura funtsezko baldintza izan da zeregin hau gauzatzeko. Genero politika berriak sartzeko izandako jarrera aktiboa, beste talde batzuk sustatuz, arduratuz eta eskatuz, lagungarria izan da oso proiektua hasteko eta jarraitzeko.
- Eredu hezitzaile bat deskribatzeko eta sakontzeko prozesu baliagarria eta dinamikoa dela erakustea.
- Generoaren inguruko oinarritzko prestakuntzatik espezializazioarako bidea hastea.
- Mota honetako eskola baten prestakuntzarako eta edozein bazterketa motaren inguruan lan egiteko baliabideak lortzea.
- Lan taldeetan aritzea, partaide askoren autonomia esnatzea eta garatzea. Sortzen zein edozein egoeraren aurrean, erantzukizun pertsonala sustatu nahi genuen eta, lan metodologia honekin, guztiok proiektuarekin identifikatzea lortu dugula uste dugu, eta, garrantzitsuago dena, proiektuaren helburuekin ere: Hezkuntza Ez Formalean neska eta mutilen arteko Aukera Berdintasuna.
- Sarritan lan bereiztua, neska taldeak alde batetik, eta mutilenak bestetik, programatzea positiboa dela ikusaraztea. Honekin emakumeen, gazteak eta ekintza soziokulturalagatik kezkatuak, kasu honetan, errealitatea eta identitatea erakustea eta ezagutzea lortu dugu. Emakume izatearen esperientzia, jakintza eta balioa auto-behaketa, onarpena, auto-balorazioaren bidez eta emakume izatearen originaltasun eta subjektibitatekin lortzen da. Anna Puissik dioen bezala, ez dugu lortuko gure balioa zein den, zelan portatuko garen munduan, nortzuk garen jakitea benetan ez bagara gizonarengandik urruntzen eta gure independentzia sinbolikoa lortzen ez badugu: “...*el sentido que tiene de sí cada cual y la capacidad de enfrentarse al mundo, sólo puede proceder, para una mujer, de su pertenencia al género femenino... más concretamente de otras mujeres.*”

- Bizikidetzara arau berriak ezartzea, pertsona guztiak, gizon eta emakume gazteak, gunea eta bizitza propioa izango dutelarik. Beti indibidualtasun berak suposatzen duten ezberdintasunetik eta taldearen aniztasunetik abiatuz.

- Hurrengo pausoak izan ziren:

- Emakumeen enpoderamendua eta generoen arteko aukera berdintasuna bermatzeko plan bat egin. Hau da, administrazioan estrategia teknikak eta tresnak diseinatu genero ikuspegia entitate osoan sartzeko. Aukera Berdintasunari buruzko politika esplizitu bat berdefinitzea eta sortzea, helburuak, estrategiak eta lehentasunak azalduz eta zilegi eginez.
- Genero politikan ardura non, norengan, zertan eta nola dagoen aipatu.
- Urtxintzan generoak duen eragina ebaluatu eta, gero, ekintza pauso berriak ezarri.
- Genero eta identitate sexuatuak dute gizon eta emakume gazteekin lan egiten dugula gogoratu. Pertsonetan kokatutako eredu bat markatzeak ez du esan nahi bidearen hasiera ahaztu behar dugunik, argi izan behar dugu jatorri hori okerreko biderik ez hartzeko eta genero edukirik ez duten termino abstraktuak ez nahasteko.
- Eskolako agente guztiak generoan espezializatutako prozesuak eta ezagutzak dituztela eta haiengana heldu ahal direla ziurtatu.
- Antolakuntzak baliabideak (pertsonak, materialak, ekonomikoak,...) izan behar ditu, baita prestakuntzarako, sentsibilizazioaren garapenerako, ekintzarako,... tresnak ere.
- Etengabe motibatu, agenda ekintza eta gertaera ezberdinak sartuz, oztopoak ekiditeko; agente ezberdinak proiektu zehatzetan sartuz; genero prozesuen abantailak ikusten lagunduz; prozesuan gardenak izanez; baliabideak bilatuz; gure esperientziak ebaluatu, dokumentatu; informatu,...

6. Gaur egun, Urtxintza Eskolan barne mailan dauzkagun bitartekoak genero ikuspegia lantzeko:

1. Mainstreaming Urtxintzan

- Proiektuak:

- Plan estrategikoa (2005-2008)
- Ikerketa: Metodologia eta ebaluazioa.
- Andraisia.

- Giza baliabideak:

- Liberatuak.
- Genero Taldea.

- Baliabide ekonomikoak:

- Aurrekontua.
- Diru-laguntza

- Jasotzaileak:

- Koordinatzaileak.
- Hizlariak.
- Ikasleak
- Liberatuak.
- Begiraleak.
- Laguntzaileak.
- bezeroak

2. Jarduerak

- **Barne mailan egindakoa:**I Plana (2001-2004)
 - II Plana (2005-2008)
 - Materialak: txostenak, buletinak, esku-liburua, ...
- **Kanpo mailan:**
 - Materialak: Jolas ez sexisten bilduma, protokoloa, esku-liburua,
 - Ikastaroak.
 - Jardunaldiak,
 - Aholkularitza.
 - Hitzaldiak
 - Bestelako proiektuak:
 - Dokumentazio txokoa.
 - Informazioa zabaldu
- **Planaren ebaluazioa (2004)**
 - Dagoeneko Urtxintxa Eskolan Berdintasun Plana bete egin dugu (2001-2004)
 - 172 ekintza
 - Hona hemen datu batzuk: Egindako ikastaroak: 30
 - Prestakuntza jaso duten Urtxintxako eragileak: 227
 - Hezkuntza iraunkorrean prestatu ditugun jende kopurua: 133
 - Adostutako hezkuntzan egindako ikastaroak:38
 - Prestakuntzatik at zenbat egitasmo burutu ditugun: 34
 - Argitalpenak: 12
 - Kanpainak: 3
 - Elkartrukeak: 6
 - Egindako ikerketak: 4
 - Sariak: 3
 - Katalogatutako liburuak eta dokumentoak: 750
- Hau guztia 3 urteetan egin dugu
- Kideek esfortzu handia
- merezi du, baina, berdintasuna oraindik ez dugu lortu
- Momentu honetan eragiteko arloak hauek dira:
 - ~ **Prestakuntzan:** Hizlari eta koordinatzaileak genero teoriarik prestatzeaz gain, baliabide praktikoak izan behar dituzte, taldeetan eta aisialdian berdintasunaren irizpideak aplikatu ahal izateko. **Ikusi eta sentitu behar dugu.**
 - ~ **Esku-hartzean:** Kudeatzaileek eta begiraleek balio hezitzaileak dira eta proiektuetan zein dinamizazioan genero ikuspegia txertatuta egon behar da, beraz, interesak eta beharrak ere ezagutu behar dira. **Teoriatik praktikara.**



urtxintxa
eskola

